

# Aizu, haize


*Aizu, haize, bazter-nahasle, bazter-garbitzaile;  
aizu, haize, zu zara zahar, zu zaude gazte. Bazoaz  
edo bazatoz? Nondik nora, eta zenbat?*

Ipuinetako teilatuetan beti azaltzen da haize-orratz bat; konturatuta zaude horrekin? Tramankulu horrek haizea nondik nora dabilen adierazten du. Baina haizeak zenbateko indarra duen jakiteko, haize-errotak erabil daitezke. Haize-orratza eta haize-errota; antzeko izenak izan arren, gauza desberdina adierazten dute.

Egin dezagun etxean izateko moduko haize-errota polit bat!




## Behar dituzu

- Kartoi mehe karratu bat, gustukoa duzun kolorekoa
- Guraizeak
- Txintxeta bat
- Borragoma duen arkatz bat



## Zer egin

1. Begiratu ongi marrazkiari, eta kopiatu a irudian azaltzen dena zure karratuan
2. Ebaki, guraizeekin, marra etena, eta ondoren tolestu, zenbakiek adierazten duten ordenan.
3. Txintxeta batez zulatu kartoi mehea eta borragoma.





Komenigarria heldu  
baten laguntza



**Haizeak zenbateko indarrarekin jotzen duen jakiteko, minutu batean errotak zenbat buelta ematen dituen zenbatu eta listo!**

Neurketak koaderno batean idazten joaten bazara, haizerik indartsuenak zein hilabetetan izaten diren ikusiko duzu!

### **Trukua**

Kartoi mehea aerofinx gardenarekin forratzen baduzu, luzaroan iraungo dizu errotak. Eta landare-poto bakoitzeko kolore desberdineko haize-errotak bana jarri gero, ikerketa zehatzagoa egiteaz gain, balkoi zoragarria izango duzu!